

GOBERNU BATZARRA

2016. 09. 05

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko irailaren bostean, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Jokin Azkue Arrastoa	1.- Aurreko akta onartzea.
Iñigo Alonso Sarasibar	2.- Kirol elkarten urteko dirulaguntzak.
	3.- Ilarki elkargoak aurkeztutako faktura.
Idazkaria:	4.- Auditoria eta urteko kontuen azterketa zerbitzua kontratatzeko adjudikazio proposamena.
Jose Luis Unanue Ugalde	
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	5.-27/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.
Paulino Alonso Eraso	

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko uztailaren 26an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da. Dena den "Berazubiko eta Suhiltzaitako biribilguneen artean irisgarritasuna hobetzeko eta honi lotutako sareak berritzeko" kontratazioari buruzko gaian kontuhartzaitzak aurkeztutako txostenaren aipamena txertatu behar da. Egindako aipamen honekin txertatutzat jotzen d txostena dagokion espedientean.

2.- Kirol elkarten urteko dirulaguntzak.

Kirol teknikariak egindako txostena aztertu da, zein irizpide jarraitu dituen eta nola banatu dituen ohizko diru laguntzak ikusteko. Diru laguntza hauek Tolosako kirol elkarte eta taldeen egituraren garapenerako bideratuak daude.

Beraz, gaia aztertu ondoren eta Kirol batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2016ko ohizko diru laguntza hauek onartzea:

<u>ELKARTEAK</u>	<u>DIRU-LAGUNTZAK</u> <u>2016</u>
Tolosaldea Usabal Igeri Kirol taldea	10.377,00 €
Club Deportivo Tolosaldea Arraun Ori	11.519,00 €
Tolosa Club de Futbol	41.911,00 €
Tolosako Adiskideok Kirol Elkartea	10.900,00 €
Oriako Txirrindulari Eskola	4.070,00 €
Beotibar Club Deportivo	2.800,00 €
Club Deportivo Igarondo Urpekoak	3.900,00 €
Laskorain Guraso Elkartea	3.075,00 €
Colegio RR PP Escolapios	547,00 €
Samaniego – Orixe kirol kluba	1.714,00 €
Oargi Mendi Elkartea (mahai tenisa)	2.740,00 €
Club Alpino Uzturre (eski taldea)	2.500,00 €
Irristaka taldea	1.547,00 €
GUZTIRA	97.600,00€

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kirol departamentuari eta interesatuei.

3.- Ilarki elkargoak aurkeztutako faktura.

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako **70.046,76** euroko faktura onartzea, abuztuko Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

4.-Auditoria eta urteko kontuen azterketa zerbitzua kontratatzeko adjudikazio proposamena.

2016eko apirilaren 25ean, Udal Gobernu Batzarrak onartu zuen Tolosako Udalari, Iurreamendi Egoitzari eta Erretengibel, S.A., Tolargi, S.L., Tolosa Lantzen, S.A., eta Tolosa Lotzen, S.A., sozietate publikoei auditoria eta urteko kontuen azterketa egiteko zerbitzua kontratatzeko espedientea.

Deialdiaren iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2016.05.09) eta Tolosako Udaleko web orrian.

Enpresa bakarra aurkeztu da: Betean Auditoría, S.L.P.

2016ko ekainaren 13an, "A" gutunazaleko dokumentazio guztia aurkeztu zuela egiaztatu zen eta "C" gutunazala ireki zen. ekainaren 22an, "B" gutunazala ireki zen eta, proposamena baloratu ondoren, kontratazio mahaiak adjudikazio proposamena egin zuen Betean Auditoría, S.L.P., enpresaren alde.

Uztailaren 7an, 2016/1262 Alkatetza Dekretuaren bidez, Betean Auditoría, S.L.P., enpresari eskatu zitzaion ondorengo alderdi hauek justifikatzeko dokumentazioa aurkez zezan, hamar eguneko epean:

- * Betetzen eta egunean dituela zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak.
- * Benetan badituela kontratua exekutatzeko izendatu dituen baliabideak (Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 64 artikulua araberak).
- * Behin-betiko fidantza, 3.345 eurokoa, jarri izana.

Enpresak eskatutakoa bete du.

Beraz, dokumentazioa aztertuta eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 151.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA: Betean Auditoria, SLP, enpresari adjudikatzea Tolosako Udalaren, Iurreamendi egoitza eta Erretengibel, S.A., Tolargi, S.L., Tolosa Lantzen, S.A., eta Tolosa Lotzen, S.A., sozietate publikoetan auditoria eta urteko kontuen azterketa egiteko zerbitzuen kontratua.

BIGARRENA: Kontratuan ondorengo baldintzak ezartzea:

-Kontratuaren iraupena 2015etik 2017ra bitarteko ekitaldien auditoriak egiteko izango da eta luzatu ahal izango da 2018ko ekitaldikoa egiteko.

-Kontratuaren zenbatekoa 26.983,00 eurokoa da (22.300,00 euro gehi %21eko BEZa, 4.683,00 euro) ekitaldi bakoitzeko.

-Kontratuaren prezioa ez da berrikusiko.

HIRUGARRENA: Kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, ebazpen honen datatik kontatuta berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri ematea enpresari eta Kontuhartzaitza departamentuari.

5.-25/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontu-hartzaitzak **27/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **259.768,21€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **27/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontu-hartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde